

## ***Makinari zerbitzuak jasotzen dituzten Gipuzkoako Lurralde Historikoko baserritarrei zuzendutako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2026ko deialdia***

Dirulaguntza honen helburua Gipuzkoako baserritar eta abeltzainei zuzendutako makinari zerbitzuak bultzatzea da; konkretuki, bazka edo forraje produkziara bideratuak dauden zerbitzuak.

Lurraldeko erliebe maldatsua eta ustiategien eta sailen tamaina txikia kontutan izanda, oso baserritar gutxi dira makinari propioa erosteko egin behar den inbertsioari aurre egin dezaketenak. Horregatik, ezinbestekoak dira baserritarrei makinari zerbitzuak eskaintzen dizkieten partikular, elkarte, kooperatiba eta enpresak.

Zerbitzu horiek sustatze aldera, Landaola —Gipuzkoako Landa Garapen Elkarten Federazioa— bidez kudeatuko den laguntza-poltsa bat sortu da, deskontu bonuen bidez kudeatuko dena.

Dirulaguntza honek bi figura nagusi dauzka: alde batetik, diruz lagunduak izan daitezkeen zerbitzuak eskaintzen dituzten eragileak; eta, bestetik, diruz lagundutako zerbitzuen onuradunak.

### **I. DIRULAGUNTZAREN ONURADUNAK**

#### **1. Helburua**

Gipuzkoako baserritar eta abeltzain askok kanpoko zerbitzuak kontratatzen dituzte, forraje edo bazka egiteko lanak egiteko. Horrenbestez, dirulaguntza hauen helburua da Mendiko Kalte-ordain Konpentsatzailea kobratzen duten Gipuzkoako baserritar eta abeltzainei zerbitzu horien ordainketan laguntzea.

Dirulaguntzaren onuradun izango direnen zerrenda urtero eguneratuko da.

#### **2. Onuradunak**

Gipuzkoako Ustiategien Erroldan alta emanda dauden ustiategietako titularrak dira dirulaguntzaren onuradunak; betiere, Mendiko Kalte-ordain Konpentsatzailea kobratzen badute (kobratu izana baieztatzeko, deialdia argitaratu aurreko urteko Mendiko Kalte-ordain Konpentsatzailea hartuko da erreferentziatzat).

#### **3. Onuraduna izateko bete beharreko baldintza**

Makinaria zerbitzuak laguntzeko, beharrezkoa da eskatzaileak honako baldintza guztiak betetzea:

- Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatea.
- Deialdia argitaratu aurreko urtean Mendiko Kalte-ordain Konpentsatzailea kobratu izana.

- Lagunduko diren zerbitzuak Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatuta dauden lursailetan jaso izana; lurraldetik kanpo dauden sailetan emandako zerbitzuak ez baitira lagunduko.
- Makinari zerbitzua jasotzen den lursaila eskatzaileak aitortu izana, aurreko urteko aitortuenean.
- Jasotzen dituen makinari zerbitzuak oinarri eta deialdi honetan zehaztutako Zerbitzu emaileen erroldan izena emandako pertsonak ematea.
- Jasotzen duen makinari zerbitzurik ez ematea beste batzuei.
- Eskatutako dokumentazio guztia behar bezala betetzea; eta, behar den epean, Landaolari helaraztea, horretarako ahalbidetu den *landaola.app* aplikazio informatikora igota.

#### 4. Lagunduko diren makinari zerbitzuak

Lagunduko diren zerbitzuak makinari astunarekin emandakoak dira; eta forraje edo bazka produktiorako bideratuak daudenak:

- Belarra rotoenpakatu.
- Belarra enzintatu.
- Arto berdea pikatzeko zerbitzua.

Horrenbestez, ez dira lagungarriak izango beste zerbitzu mota guztiak; ez eta eskuzko segadora, desbrozadora edota antzerakoekin egindako lanak.

#### 5. Dirulaguntzaren zenbatekoa

5.1. Orotara, 175.000 euro bideratuko dira, makinari zerbitzuak laguntzeko, horietatik belar bolak egiteko deskontu bonurako 150.000 € izango dira (100.000 € rotoenpakatzeko lanetarako eta 50.000 € enzintatzeko lanetarako) eta 25.000 € arto berdearen pikadara zerbitzuaren deskontu bonuetarako.

5.2. Baserritar bakoitzari deskontu bonu kopuru bat izendatuko zaio, aurreko bi urtetako lanetan egindako bola kopurua eta arto pikadorarekin egindako ordu kopurua erreferentzia hartuta batz besteko bat eginez; eta aurrekontu erabilgarri osoaren arabera kalkulatu zaio proportzioa, %10eko zehaztua koefiziente aplikatuta. Deskontu bonuak hiru zerbitzu mota laguntzeko izango dira: belar bolak rotoenpakatzeko eta belar bolei plastikoa emateko [€/bolako] eta arto berdea pikatzeko makinaren zerbitzurako [€/orduko]. Zerbitzu mota bakoitzari dagokion deskontu bonua, dagoen aurrekontu erabilgarri osoaren eta baserritar guztien artean egin den lan eskaeraren artean kalkulatu izango da eta baserritar bakoitzari jakinaraziko zaio dagokion kopurua aplikazio informatikoaren bidez.

5.3. Baserritar batek lehenengo aldiz egiten baditu belar bolak edo artoa, beste eskatzaile guztiei dagokien bola eta ordu kopuruen batez bestekoa hartuko zaio erreferentziatzat.

5.4. Baserritar batek gehienez 8.000 euroko balio metatua duten deskontu bonu kopurua jaso ahal izango du, urte batean.

## 6. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Oinarri honetan ezarritako deskontu bonuak jasotzen dituzten onuradunek beste dirulaguntza batzuk jaso ahal izango dituzte, dirulaguntzen izaera edo haiek ematen dituen organo edo administrazioa edozein delarik ere.

## 7. Eskaerak aurkeztea

2026 urtean jasotako makinari zerbitzuak laguntzea nahi duten horiek **maiatzaren 26ra** arteko epea izango dute eskaerak aurkezteko, oinarri eta deialdia Landaolako webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasita.

Eskaerak makinaria zerbitzuen kudeaketa egiteko egokitu den *landaola.app* aplikazio informatikoaren bidez egin beharko dira. Eskaerarekin batera, beharrezko dokumentazioa atxikituko da (eskaera egiteko eredia beteta bidali beharko da).

Eskaera egitean, beharrezkoa izango da makinari zerbitzua jasoko duten lursailak berariaz identifikatzea, SIGPAC kodeak adierazita.

## 8. Deskontu bonuen justifikazioa

8.1. Deskontu bonuak kudeatzeko sortu den aplikazio informatikoan, baserritarrak zerbitzu emaileari bere deskontu bonuen poltsa kontsultatzeko baimena emango dio. Horrela, zerbitzu emaileak, baserritarrak momentu horretan erabilgarri dituen deskontu bonu kopurua zenbatekoa den jakin ahalko du. Bonuak jasotako zerbitzuen (bolen eta orduen) baitan trukatu dira. Deskontuak fakturaren zenbateko osoaren gainean egingo dira, BEZ-a aplikatu eta geroko zenbatekoaren gainean, alegia. Modu horretan, fakturak sortaraziko lukeen BEZ osoa deklaratzeko ahalbidetzen da.

8.2. Baserritarrak fakturak ordaindu izanaren ordainagiriak aurkeztu beharko ditu, Landaolak horretarako ahalbidetu duen aplikazio informatikoaren bidez. Deskontu bonuak aplikatu zaizkion faktura bat ordaindu gabe izateak, gainerako deskontu bonuak "giltzapean" izatea eragingo du, faktura hori ordaintzen den arte. Fakturak eginak izan diren datatik gehienez hilabete bateko epean ordainduak izan eta aplikaziora igoak izan beharko dira. Behin faktura ordainduta, gainerako bonuak berriro erabilgarri izango dira. Deskontu bonua aplikatu zaion fakturaren bat epe barruan ez ordaintzeak, hurrengo urtean deskontu bonuak izateko eskubidea galtzea eragingo dio baserritarrari; eta urte honetan onuradun izan den deskontu bonuen itzulketa eskatuko dio Landaolak.

8.3. Rotoenpakatzeko eta enzintatzeko lanen kasuetarako, irailaren 1ean baserritar bakoitzak gastaturiko bonuen zenbaketa egingo da. Data horretan, jasotako bonuen % 85a gastatu ez duten baserritarren soberako deskontu bonuak, ordurako deskontu bonu guztiak gastatu dituzten baserritarren artean birbanatuko dira, bakoitzari dagokion proportzioan. Hortaz, bonuen % 85a gastatu ez duten baserritarrek unean dituzten bonu guztiak galduko dituzte.

Birbanaketaren ostean bonuak jasotzen dituzten horiek, hortik aurrerako zerbitzuetan trukatu ahal izango dituzte bonuak; eta ez aurrez inolako deskonturik gabe jasotakoetan.

8.4. Deskontu bonuak **urriaren 15** arte izango dira erabilgarri.

8.5. Baserritarren ordainagirik aplikazio informatikora igotzeko azken eguna **azaroaren 15** izango da. Epe horretan ordainagiri guztiak igotzen ez dituztenei Landaolak aplikatu zaizkien deskontu bonuen itzulketa eskatuko die. Horretarako Landaolak faktura bat igorriko dio baserritarrari. Eta, era berean, hurrengo urtean deskontu bonuak izateko eskubidea galtzea eragingo dio.

## 9. Jarraipena

Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Landaolako teknikariek lanen ikuskapenak egin ditzakete. Praktika ez egokiren bat topatu edo identifikatuko balitz, dirulaguntza bertan behera geratzeko aukera egongo da.

## 10. Zalantzen kudeaketa

Edozein zalantza argitzeko [makinaria@landaola.eus](mailto:makinaria@landaola.eus) helbide elektronikora zuzendu; edo Landaolak horretarako jarri duen telefono zenbakira: 613564728.

## II. ZERBITZU EMAILEAK

### 11. Zerbitzu emaileak

Zerbitzu emaileak izaera desberdina izan dezakete: baserritar autonomoak, elkarte zibilean antolatuta dauden baserritarrak, Landa Garapeneko Elkartek, baserritar elkarteak, Landa Garapen Elkarteen SMak...

Zerbitzua eskaini nahi dutenek, zerbitzu emaileen erroldan izena eman beharko dute.

Makinari zerbitzua eskaintzen duten horiek, beraiek eskaintzen dituzten zerbitzu mota horiengatik ezingo dute deskontu bonuen onuradun izan aldi berean.

Foru Aldundiko landa garapeneko inbertsioetarako diru laguntzen bidez lagunduak izan diren makinekin zerbitzuak ematen dituztenak oinarri hauetatik kanpo geratuko dira.

### 12. Zerbitzu motak

12.1. Zerbitzu emaileek makinari zerbitzu ezberdinak eskaini ditzakete; hala ere, oinarri eta deialdi honetan zehazten diren zerbitzuetan bakarrik aplikatuko ditu deskontu bonuak.

12.2. Zerbitzu emaileek lagungarri direnen artean zein zerbitzu emango dituzten zehaztu beharko dute, *landaola.app* aplikazio informatikoan, zerbitzu emaileen erroldan izena emateko taula erabiliz. Zerbitzuen tarifak ere zehaztu beharko dituzte nahita-nahiez.

12.3. Izena ematean, zerbitzua eskaintzeko zein makina erabiliko dituzten zehaztu beharko dute (makina mota, marka, modeloa eta matrikula). Ibilgailu guztiak zerbitzua ematen duen pertsonaren izenean egon behar dute, nahitaez; eta Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean erregistratuta egon beharko dute.

12.4. Izen emateko eskaerarekin batera, zerbitzuak zein eskualdetan edota eremutan eskainiko dituzten adierazi beharko dute. Zehatz-mehatz adierazi beharko dute lurraldea, eskualdea edota udalerrria, zerbitzu emaileak bere eremua mugatu nahi duen kasuetan.

### 13. Emandako makinari zerbitzuen prezioa eta deskontu bonuen kudeaketa

Zerbitzu emaileen erroldan izena ematean, zerbitzu bakoitzagatik kobratuko duena adierazi beharko dute zerbitzu emaile interesatuek.

Baserritar bakoitzari izendatu zaizkion deskontu bonuak kontutan hartuko ditu zerbitzu emaileak, bakoitzari egindako lanen fakturak egitean. Baserritarrak bere deskontu bonuen poltsa kontsultatzeko baimena emango dio zerbitzu emaileari, honek uneoro jakin dezan baserritarrak deskontu bonurik erabilgarri ote duen edo ez jakiteko. Baserritarrak deskontu bonuak agortuta baditu, zerbitzu emaileak ezingo dio deskonturik aplikatu eta zenbateko osoa fakturatuko dio.

Deskontu bonuak hiru motakoak izango dira:

- Rotoenpakatutako bola bakoitzeko € kopuru bat.
- Plastikoa jarritako bola bakoitzeko € kopuru bat.
- Arto berdea pikatzeko makinarekin egindako ordu kopuru bakoitzeko € kopuru bat.

### 14. Fakturak

Deskontu bonuak aplikatzen zaizkien zerbitzu motak fakturatzerakoan, deskontuak fakturaren zenbateko osoaren gainean egingo dira, BEZ-a aplikatu eta geroko zenbatekoaren gainean, alegia. Modu horretan, fakturak sortaraziko lukeen BEZ osoa deklaratzeko ahalbidetzen da.

Deskontua aplikatuko zaien fakturak Landaolak ahalbidetu duen *landaola.app* aplikazio informatikoa erabiliz egin beharko dira, nahita-nahiez. Era berean, honako datuak jaso beharko dira, gutxienez: zerbitzu emailearen datuak, bezeroaren datuak, lanak egindako data, egindako lanaren kontzeptu zehatza, kopurua, zerbitzuaren prezio unitarioa, zerbitzua eskainitako lursailaren SIGPAC kodea (lurraldea, udalerrria, poligonoa, partzela eta esparrua) eta lanaren prezio osoa.

## 15. Zerbitzu emaileek bete beharreko baldintza orokorrak

Zerbitzu emaileak erroldan izena eman ahal izateko, honako baldintza guztiak bete beharko dituzte:

- Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatea.
- Makinaria egokia erabiltzea eta egoera onean edukitzea, baserritarrei kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko. Ildo horretan, ibilgailu guztiak IATA igarota eduki behar dute.
- Makinari guztia aseguratua edukitzea; eta dagozkien erantzukizun zibileko polizak ere indarrean edukitzea.
- Zerbitzu guztiak pertsona berak ematea; eta ezingo da beste enpresa edo autonomorik azpikontratatu, lanak egiteko.
- Gutxienez bost baserritar profesionali zerbitzua ematea.
- Izena ematean adierazitako tarifak kobratzea eta baserritar bakoitzari dagozkion deskontu bonuen arabera kobratzea, emandako zerbitzuengatik (ez gutxiago; ezta gehiago ere).
- Lan arriskuen prebentziorako beharrezko neurriak hartuz lan egitea.

## 16. Zerbitzu emaileen erroldan izena ematea

Diruz lagundutako zerbitzuak eskaini nahi dituzten horiek **maiatzaren 26ra** arteko epea izango dute eskaerak aurkezteko, oinarri eta deialdia Landaolako webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Oinarri eta deialdiak lehen sektoreko bi kudeaketa etxe nagusietara bidaliko dira, zabalkuntza lana egin dezaten.

Izena emateko eskaerak Landaolak horretarako ahalbidetu duen *landaola.app* aplikazio informatikoaren bidez egingo dira; eta, eskaerarekin batera, beharrezko dokumentazioa atxikituko da.

Eskaera egiteko eredu bat beteta bidali beharko dute dagokion epean.

## 17. Baldintzak ez betetzea

Praktika ez egokiren bat topatu edo identifikatuko balitz, Landaolak zerbitzu emailearekiko hitzarmena bertan behera utzi dezake.

Gainera, zerbitzu emaileek oinarri honetan jasotako baldintzak betetzen ez badituzte, hurrengo bost urteetan ez dira lagunduko pertsona horrek emandako makinari zerbitzuak; eta Zerbitzu emaileen erroldatik kanpo geratuko dira.

## 18. Zalantzen kudeaketa

Edozein zalantza argitzeko [makinaria@landaola.eus](mailto:makinaria@landaola.eus) helbide elektronikora zuzendu; edo Landaolak horretarako jarri duen telefono zenbakira: 613564728.